



BARREN
TOKIKOM

Pitxintxuk 40 urte



25 URTE zuen
zerbitzura

*ESKERRIK ASKO gudan
jarritako konfiantzarengatik*

Tfnoa: 943 741800 / Faxe: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)



denolan, s.l.

ENPRESA AHOLKULARITZA

denolan@denolan.es

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxe: 943 20 18 41 Muzategi, 1 (EIBAR)

Eibarko La Salle Azitain

**Artezko
Batxilergoa**

**Giza eta Gizarte
Zientzietako
Batxilergoa**



**Zientzietako
Batxilergoa**

**ZATOZ
GUREKIN**

Aurrematrikula zabalik maiatzaren 2tik 14ra



BT-er berritasunarekin
AURREMATRIKULA duen ikasle bakoitzak
Dentzen araztegiak erabiliz
AURREMARIKULA duen ikasle bakoitzak

www.lasalleeeibar.com
emaila: azitain@lasalle.es
Tel: 943121698



Barren 25 urte

Kalezulotik baserrira

Hileko azken zapatuan izaten da nekazari eta abeltzainen feria Elgoibarren. Baserrietatik kalera jaisten dira ortuko produktuekin eta ganaduekin. **BARRENEk, ordea, 'Kalezulotik Baserrira' egin zuen 1994an, aldizkarian kaleratzen hasi ginen gehigarriarekin. Handik urte batzutara, eten baten ostean, 'Amalurra' atalake hartu zion lekukoa lehen ahalegin hari.**

Lauro orriko gehigarriarekin kaletarrei baserri giroa gerturatzeko nahi izan genuen. Azoka hileko azken zapatuetan izaten da Elgoibarren, eta hileko lehen barixakuetan kaleratu ohi genuen guk gehienetan gehigarria. Azokaren kronika egiten genuen bertan, eta kronika laguntzeko, protagonistaren baten berbak jasotzeko ohitura ere bagenuen. Azokara ekartzeko zituzten ganaduen eta azken makinaren berri ematen genuen eta baita barazki eta bestelakoaren prezioen berri ere. Aldiren batean, azokan bertan jaiotako txahalaren bati ere egin genion lekua. Sasoi bakoitzean indarrean zegoen gairen bati buruzko iritziak ere jasotzen genituen azokara batzen zirenen ahotik eta iritzi haiek gaian jakitun zen norbaiten iritzi sako-nagoarekin janzten genituen gero.

Kaletik baserri girora gerturatzeko beste ahaleginik ere egin genuen, baina, nekazaritza auzoen berri ematen hasi ginelako geroxeago: Aiaztia, Altzola, Arriaga, Azkue, Idotorbe, Sallobente-Ermuaran eta Urruzunoko baserrien historia, auzotarren inguruko jakingarriak, baserrietako bizimodua eta beste hainbat kontu jaso genituen astero-asteroko atalean.

BARRENEk, baserrien berri jaso genuen, eta ondoren, *Elgoibarko Baserriak* gida-liburua kaleratu zuen Debemeneke. Elgoibarrek 1996. urtean bete zuen herri bihurtu zeneko 650. urteurrena, eta data berezi hori aukeratu zuen Debabarreneko landa garapen elkarteak gidaren ideia martxan jartzeko. Baserri auzoetako alkateek banatu zi-



tuzten baserri guztietan fitxak. 200 fitxatik gora jaso ostean osatu eta biribildu zuen Jaseone Osoro kazetariak 1997an kaleratu zuten baserrien gida. Azokaren kronikak, iritziak, baserriak eta nekazaritza zein abeltzantza giroko jendeari egindako elkarrizketak jaso genituen BARRENEk lehen etapan. Diseinu aldaketarekin, baina, herri inguruko auzo eta mendietan egin zitezkeen ibilbideak proposatzeari ere ekin genion. Ibilbide ezberdinen gaineko argibideak eta hainbat bitxikeri ekarri genituen orrialde horietara. *Kalezulotik Baserrira* gehigarria 2000. urtera arte argitaratu genuen BARRENEk, eta gehigarri hura osatzen lagundu ziguten izen-abizenak ekarri nahi ditugu hona, haien laguntza ezinbestekoa izan zitzaguilako: Asier Al-

bizu, Idoia Esnaola, Agustin Irusta, Karmen Korta, Agurtzane Etxaniz eta Iñaki Oñederra. Gehigarriak etena izan arren, baserriko kontuek beti izan dute lekua gure agerkari honetan, modu batera zein bestera. Gauza bat edo beste gatik protagonista zirenak ekarri genituen eta protagonista bihurtu genituen beste zenbait, gure egitekoa horixe dela sinistuta, baina, 2008an, aparteko beste leiho bat eskaini genien baserri kontuei. Urte horretan hasi ginen *Amalurra* atala argitaratzen. Landa eremuetako kontuez gain, ingurumenari lotutako beste hainbat ere batu genituen *Amalurra*-n. *Sasoian sasoikoa* izenburupean, garaiko barazki eta fruituen berri ematen hasi ginen esaterako, eta baserriaren bueltako hainbat bitxikeria batzen.

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Oso txikitan gelditu zen Blaise amarik gabe eta bere aitak, legegizona eta gizon jantzia zenak, bere gain hartu zuen haren heziketa. Parisera mugitu zen familia 1631n. Oso umetatik erakutsi zuen Blaisek matematikarako zuen gaitasuna: 16 urterekin

kurba konikoak aztertzen zituen lan bat aurkeztu zuen; 18-19rekin gaur Parisko arte eta ofizioen museoan aurki daitekeen *Pascalina* kalkulagailu mekanikoa asmatu eta eraiki zuen. Ez ziren hor amaitu bere ekarpenak. 1653ko azaroaren 23ko gauean, baina, zaldiek tiratako gurdian ohiko paseoa ematen ari zela, Pont de Neuilly-ra sartzerakoan, zaldiak izutu eta zubiko horma gainetik saltota gurdia beraiekin zeramatela, engantxeak hautsi izanaren halabeharrak salbatu zuen Blaise; gurdia, eta honen barruan bera, ozta-ozta zubi gainean gelditu ziren. Jaungoikoaren arnasa antzeman zuen gure gizonak gertatutakoan, gau hartan bertan idatzitako

Blaise

eskuizkribuan jaso zuenez. Matematika eta zientzia alde batera utzi eta teologiarra dedikatu zen. Eta horrela jarraitu izango zukeen zikloideagatik izan ez balitz. Izan ere, 1658ko gau batean, izugarriko hagineko min batek lo egiten uzten ez ziola-eta, mina ahazteko distrakzio modura, zikloidea aztertzea erabaki baitzuen. Bizikleta baten gurpilean pegatutako txikle batek, bizikleta errepide zuzenean mugitzean, edo txanpon baten ertzean margotutako puntu batek, txanponak erregela baten gainean errotatzean deskribatzen duen kurba horixe da zikloidea. Txirristarik bizkorrenak diseinatzeko ere balio du, bidenabar, Blaise Pascalek 1658ko gau itsusi hartan bere minen sendagarri aukeratutako kurbak.

“Txirristarik bizkorrenak diseinatzeko ere balio du, bidenabar, Blaise Pascalek 1658ko gau itsusi hartan bere minen sendagarri aukeratutako kurbak”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Jaurlaritzaren Argitaeraketa

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpilaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2000

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Lerro hauen bidez, Mendaroko Txirindulari Elkartetik eta Lizarpe Mendi Klubetik eskerrak eman nahi dizkizuegu Kilimon Trail mendi lasterketa handi egiten lagundu diguzuen guztioi. Mila esker babesle eta laguntzaile guztioi, eta baita, jakina, parte hartu zenuten korrikalari guztioi ere. Eskerrik asko, era berean, baserritarroi ere, emandako erraztasunengatik eta elkarlanerako erakutsitako prestutasunengatik, eta beste horrenbeste egunean bertan zuen onena eman zenuten boluntario guztioi. Zuek guztion babes eta laguntzarik gabe hau ez litzateke posible izango. Eginahalak egin ditugu zortzigarren hau ere dotorea izan zedin, eta benetan ederra izan da. Antolakuntza-lanen biharamunarekin gaude oraindik, baina indartsu eta gogoz datorren urtekoari heltzeko. Urtebete barru hor izango zaituztegiulakoan, eskerrik asko bihotzez.

Mendaroko Txirindulari Elkartea eta Lizarpe Mendi Kluba

► OHARRA

Maiatzaren 1eko jai-zubia dela-eta, maiatzaren 4an ez dugu BARREN argitaratuko.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzendutako mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitz argitaratuko.

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntza doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Ballen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

ECOIBAR4D
imagen prenatal
R.P.S. 44340878y
688 800 800
Isasi kalea, 17 - EIBAR
4D ekografietan espezialistak

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Terribio Eteberria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 850

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com
RPS 132/18

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

'Herri Txiki, infernu handi' saioko aurrez aurrekoa egunean izango da Aiastian

Uskal Telebistako *Herri txiki, infernu handi* saiokoak Aiastian izan ziren martitzenean programa grabatzen, eta hilaren 26an, ostegunean, etorriko dira berriro auzotarren aurrean saioa aurkeztera eta aurrez aurreko saioa bera grabatzera. Aiastiako grabazioaren inguruan ez du ezer aurreratu nahi izan Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak, baina saio ederra izango dela zehaztu du, auzotarrek grabazio-egunean dena eman zutela esanda.



Edurne Bilbaok eta Lurdes Arrietak irabazi dute 'Barren beti gainean' lehiaketa



Edurne Bilbaok eta Lurdes Arrietak jasoko dituzte Errigorak *Barren beti gainean* lehiaketarako emandako bi otarrak. 25. urtemugaren harira antolatu genuen lehiaketa, eta parte hartu duten guztien artean egindako zozketan Bilbaori eta Arrietari egokitu zaie saria.

Udaleku irekietarako izena emateko epea zabalik Mendaron

Udaleku irekiak antolatu ditu Mendaroko Udalak HH3 eta LH6ko neska-mutilentzat. Uztailaren 2tik 20ra izango dira, 9:30etik 13:00etara, eta izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Interesatuak apirilaren 30a arteko epea dute izena emateko. Horretarako fitxa bete eta 80 euro ordaindu beharko dituzte ondorengo kontu korrante zenbakian: 2095 5054 011061225891 (Mendaron erroldatuta ez dauden umeek 150 euro ordaindu beharko dituzte, eta familia ugaria direnei 25 euroko deskontua aplikatuko zaie hirugarren umea matrikulatzegatik). Fitxa www.mendaro.eus webgunean eskuratu daiteke.

18 eta 35 urte arteko gazteentzat diru-laguntzak etxea alokatzeko

Herriko gazteen emantzipazioa errazteko, 50.000 euro banatuko ditu Elgoibarko Udalak. 18 eta 35 urte bitarteko gazteek eskatu ahal izango dute laguntza orain, adin tartea 31 urtetik 35 era igo baitu Udalak. Interesatuak maiatzaren 25erako aurkeztu beharko dituzte eskaerak Herritarren Arreta Zerbitzuan edota elektronikoki, Udalaren web orrian dagoen Hiritarren Atarian sartuta. Laguntza jasotzeko, eskatzaileak gehienez urtean 32.000 euroko diru-sarrera gordina izan beharko du (orain arte, gehienez 25.000 eurokoa zen) eta baldintzak betetzen dituztenek hilean alokairuagatik ordaintzen dutenaren erdia jasoko dute, baina gehienez ere, 250 euro hilean. Argibide gehiagorako: www.elgoibar.eus.

Hamabostean behin irtengo dira kalera jubilatuta eta pentsiodunak

Joan zen ostegunean bilkura berezia egin zuten Elgoibarko jubilatuta eta pentsiodunek Herriko Antzokian, besteak beste ordura arteko protesta-ereduarekin jarraitu ala ez erabakitzeko. Bilera hartan erabaki zuten aurrerantzean hamabostean behin irtengo direla Kalegoen plazara, astelehenero, 19:00etan. Astelehenean egin zuten hil honetakoa eta maiatzean, 7an eta 21ean irtengo dira.

'Nola landu biktimen aitortza herrian' mahai ingurua, martitzenean

Bizikidetzaren zikloaren barruan, *Nola landu biktimen aitortza herri mailan* izenburuko mahai ingurua antolatu dute datorren martitzenerako, hilaren 24rako. Aurreko biak moduan, Musika Eskolako auditoriumean izango da hau ere, eta hizlariak bi izango dira: Laura Pego Otero (Pasaia, 1968) abokatua eta Kriminologiako Euskal Institutuko ikerlaria da eta Gema Varona Kriminologia Institutuko ikertzailea. Astearte honetan izan zen bigarren saioa, Paul Rios Lokarriko koordinatzailea eta Jon Mirena Landa Zigor Zuzenbideko irakaslearekin, eta BARRENEK datorren astean argitaratuko du Jon Mirena Landari egindako elkarrizketa.

Miguel Vargas Arnaiz Duintasunaren Kolunbarioan hobiratu dute, hil eta 82 urtera

36ko Gerran hil zuten Miguel Vargas Arnaiz Burgosko Rabanera del Pinarren. Herriko hainbat lagunek markatuta zuten lekua eta 2009an hura lurpetik ateratzeko eskaera jaso zuen Aranzadik. Hobi hartan bost lagunen gorpuzkinak topatu zituzten, baina ez bila ari zirenenak. Haietako bati DNA froga egin ahal izan zioten eta hari esker identifikatu ahal izan zuten Miguel Vargas zela haietako bat. DNA programa abiatu zutenetik identifikatu duten lehen pertsona izan da Vargas, eta martitzenean, haren senitartekoei itzuli zizkien gorpuzkinak Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak. Duintasunaren Kolunbarioan hobiratu zuten, eta Vargasekin 52 dira guztira Kolunbarioan orain arte hobiratutakoak. Miguel Vargas Burgoskoa zen sortzez, baina Tolosan bizi izan zen urte askoan. Irakaslea izan zen, eta baita Guardia Zibila ere, Sorian. Erretiroa hartu ondoren gerra hasi aurretik joan zen Tolosatik sorterrira, San Millan de Larara (Burgos, Espainia) baina 1936ko irailaren 23an atxilotu zuten lau lagunekin batera eta 1936ko irailaren 27an fusilatu zuten.



Elgoibarrera egin zuen bisita baliatuz, Angel Berazadi eta Jaime Arrese elgoibartarrak omendu zituen Urkulluk, hilerrian bertan.

Artezteko makinen fabrikaziorako Elgoibarko enpresa batek proiektuak kudeatzeko pertsona behar du lantalderako

BALDINTZAK:

- Ingenieritza mailako prestakuntza (ingeniaritza teknikoa edo goi mailakoa)
- CNC programazioaren ezagutza (Siemens, Fanuc...)
- Ezinbestea ingelesa ondo menperatzea
- Ezinbestekoa kanpora bidaiatzeko prestutasuna izatea
- Berehala lanean hasteko
- Baloratuko da makina-erreminta sektorean eskarmentua izatea
- Interesatuak bidali curriculumak: maquinasderectificado@gmail.com

Azaletik

Ez egin planik maiatzaren 25erako!

MAIATZAK 25, BARIXAKUA

BARREneko azal-orrian agertu diren lagun guztiak eta gehiago batuko ditugu Kalegoen Plazan.

♦ **18:00etan** azal-orriak banatzen hasiko gara, gero, nor bere lekua hartzeko plaza. Azal-orri guztiak aterako ditugu plazara, 1077 aste horretakoa zenbatuta. Azaleko pertsona bat lotzen ari gara, baina helburua bada plazan ahalik eta jende gehien batzea ere. Horregatik herritar guztiak deitu nahi ditugu parte hartzera.

♦ **19:00etan** argazkia aterako dugu.

♦ **21:00etan**, Maalan, kantu-dantza afaria, Angel Marizkurrena abeslariarekin. Duela hamabi urte hasi zen kantu bazkariak antolatzen, eta Dantxarineariko Benta Peion, urtero arrakasta itzelez egiten den Kanta Zaharren Eguna ekimenaren bultzatzailea da. Bazkari, afari eta kontzertuak antolatzen ditu, baita Benito Lertxundi eta beste punta-puntako abeslariarekin ere, eta sanferminetan Iruñeko Baluarte Biltzar Jaurgia goraino bete du azkeneko urteetan 'Iruñea Kantuan' saioan.




Afariarako txartela eskuratu beharko da.

Non: BARRENen edo Elgoibarko Izarraren bulegoan (Ubitarte, 2)

Noiz: Apirilaren 23tik maiatzaren 21era.


Prezioa: 16 euro.



Azaleko pertsona bat sartuko da plazan jarriko dugun itxiturara, eta argazkilariek agindutakoan azalak jasoko dituzte.

BARRENera

BARREN denok garelako, zatoz zu ere elkarrekin 25. urteurrena ospatzera.



MAIATZAK 29, EGUAZTENA

'Zer eman dio BARREnek herriari?'
mahai inguru.

Non: Musika Eskolako auditoriumean
Ordua: 19:00etan



Ane Odria



Aitor Gisasola



Agurtzane Garcia



Ainhoa Lodoso
Aurkezlea



Mari Jose eta Izaskun Estibaritz Astarloa ahizpak.

Pitxintxu: 40 urte opari

Izaskun eta Mari Jose Estibaritz Astarloa ahizpak. Pitxintxu dendako mostradorean batzuetan, eta denda osteko itzalean, besteetan. Han dituzte arropa josteko lehenengo makinak eta gerora inauterietako moztarrok sortzeko pilatutako oihalak, eta baita era guztietako liburuak eta oparitarako kontuak ere. Opariek 40 urteko lana eman diete Pitxintxu dendako ahizpei eta bertan jardun direnei, eta urte hauetan guztietan pilatutako bizipenak opari dira haientzat. Apirilaren 23an beteko dute 40. urtemuga, San Frantzisko kalean, "herriko arteria printzipalean", Uxue Alberdi bertako alabak urteurrenaren harira propio sortutako bertsoan esan bezala. Bitxiak, poltsak, diskoak, liburuak... ekarri dizkigute urteetan, eta hala jarraituko dute erretiroa hartu artean.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

San Frantzisko kaletik pasatzen den zein herritarrek ez dio noizbait Pitxintxu opari dendako erakusleihoren bati begiratu? 40 urte izan ditugu elgoibartarrok horretarako, izan ere, apirilaren 23an beteko du dendak 40. urtemuga.

Gero dendan egingo zutena, etxean hasi ziren egiten Izaskun eta Mari Jose ahizpak. Etxean eman zituzten lehen puntadak, eta hantxe hasi ziren josten eta brodatzen ere. Oihal artean ematen zituzten orduak eta orduak, baina etxeko txokoa txiki gelditu zitzaizenez, oihalak astindu eta kalera eraman zituzten, mertzeria kontuekin eta liburuekin batera dendan salgai ipintzeko. 1978an ireki zuten denda, krisi bete-betean, eta bati baino gehiagori entzun behar izan zizkieten halakotan behin eta berriz errepikatu ohi diren kontuak, gehiegi arriskatu zutela eta zorratuta zeudela, besteak beste. Astigarraga dendako Fernandorengana joan zen aholku eske Mari Jose. "Dirurik gabe denda batek xurupatu egiten duela esan zidan. Baina gu gazteak ginen, eta

gaztearen ausardia horrek hauspotuta mailegu bat eskatu eta aurrera egin genuen. Gurasoek ere lagundu ziguten, negozioa zabalitzen duenak badakielako denbora behar izaten dela egindako inbertsioari buelta emateko. Lagunek ere lagundu ziguten, fakturak ezin ordainduta ibili ginelako hasieran. Dirua utzi ziguten, gero bueltatzeko baldintzarekin. Hala ere, lehen sei urteetan ez genuen soldatarik izan. Lortzen genuen dena fakturak ordaintzeko behar izaten genuen". Kostata egin zuten aurrera, ilusioz beti, nahiz eta hasierako puntada haiek behin eta berriz askatu. Zutabe nagusietako bat zutena, aita, hil zitzaien, eta ufalek bi aldiz hartu zuten denda.

Ezustean hartu zituen urak. Orain ohitu dira, eta neurria ere hartu diote ibaiari, baina sasoi batean Deba ibaiari begira igarotzen zuten eguna, euri asko egiten zuenetan. Baina urari nekez egin dakioke kontra, eta horixe gertatu zitzaien 1983ko eta 1987ko uholdeetan. "Ufalek ondoren jendeak esaten zigan denda oso ondo gelditu zela, baina kostatu zitzaigun hori gain-

“Liburuak izugarri gustatzen

zaizkigulako eusten diogu honi, eta badaudelako, gu bezalaxe, papereko liburuen oso zaleak direnak ere”

ditzea. Nik ez dakit ohartzen ziren galdu genuen guztiaz, ez genuelako dirua bakarrik galdu. Akituta laga gintuen gertaera hark, mentalki eta fisikoki. Sekulako eragina izan zuen gugan, eta urtetan izan genituen amesgaiztoak uholdeekin. Orain gertatu izan balitzaigu, erretiroa hartu eta kitto, baina orduan hasi berriak ginen eta...”.

Uholdeek eragindako kalteei aurre egiteko ere lagunak eta etxeokak izan zituzten aldamenean. “Gantxiloak ere banan-banan garbitu behar izan genituen eta 20 lagunetik gora aritu egin egiteko horretan. Urte asko joan dira ordutik, baina oraindik zorretan gaude haiekin eta ezin gara eskerrak eman gabe gelditu”.

MOZORROAK

Oihalekin hasi ziren dendan lanean eta gogoan dute, esaterako, Gabon batzuetan ogiarentzako eta arropen pintzentzako oihalezko poltsak egin zituztela eta erakusleihora atera orduko saldu zituztela. Eskariari ezin erantzunda ere ibili ziren. Pitxintxuneko mozorrorik izan ez duenik ere ez da izango inguruotan. Makina bat mozorro josi dituzte denda osteko biltegian, eta zenba ezinak dira horretan eman dituzten orduak. “Inauterietan, enkarguak jaso, oihalak aukeratu, moztu eta atondu egiten genituen, baina beste hiru josten geneuzkan laguntzeko. 21:30ean etxera joan, afaldu eta berriz lanera bueltatzen ginen arren, izan zen inauteri zapaturik arratsaldeko bostetan oraindik mozorroak amaitu gabe izan genuenik. Orain jendeak aurrez egindakoak erosten ditu, eta geu ere egin gara horretara. Orain askoz mozorro gutxiago josi behar izaten ditugun arren, lan asko pilatzen zaigu inauterietan”.

Beti ahalegindu izan dira herritarrek egindako eskariak ahalik eta azkarren betetzen. Gogoan dute behin mutil bat joan zitzaizela lagun bat hil zela eta kutxarako dolu-xingola bat behar zutela esanez. Hileta baino bi ordu aurretik joan zitzaizen, eta di-da batean josi zioten. Egindako mesedeagatik, eskatutakoa baino diru gehiago eman zien bezeroak. “Batzuetan aurrekontua egitea zaila izaten da, ez baitakigu zenbat denbora eta zein material beharko dugun. Hala ere, sekula ez dugu kobratu uste baino gehiago, nahiz eta batzuetan zerbaite bereziagoa eskatzen diguten. Josi erraz josten dugun arren, batzuetan mereziko zuen gehiago kobratzea ere, sarri denbora justuarekin etortzen zaizkigulako bezeroak eta erlojuaren kontra ibili behar izaten dugulako, baina josten egindako denboraren eta materialak balio duenaren arabera kobratzen dugu beti”.

Ez dute aspertzeko tarterik izaten dendan. “Gurekin lanean daudenek askotan ez dute ikusten atzean zertan ari garen, josten, liburuak artxibatzen...”. Bederatzi urtez ari da Maria Jesus Lazkano Pitxintxu dendan lanean eta argi dio “oso esperientzia ederra” izan dela. “Izaskun eta Mari Jose oso baikorrak eta langile finak dira, eta niri asko lagundu di-

date. Gainera, dendan denetarik daukagu saltzeko, beraz, asko ikas daiteke. Hemen ez da inor sekula aspertzten. Gure bezeroak ere askotarikoak dira.

Urteurrenarekin ere oso pozik gaude, ospatzeko desiatzen. Hori bai, gauza bat argi daukat: hauekin batera hartuko dut nik ere erretiroa. Izaskunek eta Mari Josek uzten dutenean, neuk ere utzi egingo dut”.

LIBURUAK

Pitxintxu opari-denda den arren, askok liburu dendatzat dauka. Izan ere, argitaratu eta berehala ekartzen dituzte dendara liburu berriak. Makina bat tokitan sumatu dute papereko liburuen salmentaren jaitsiera, baina Pitxintxun ez dute horrenbestekorik igarri. “Gero eta gutxiago irakurtzen da paperean, bai, baina ez pentsa hori liburu elektronikoaren eraginez denik. Jendeari denbora joaten zaio *smartphoneari* begira. Guk, zorionez, ez dugu diskoetan besteko jaitsierarik sumatu liburuetan. Musikan gauza konkretuak baino ez dauzkagu, nahiz enkarguak egun batetik bestera ekartzen ditugun. Baina, bai, *Spotifyrekin*, adibidez, musika eskariak nabarmen egin dute behera. Liburuak dira dendan daukagun materialaren ia erdia, %40 inguru. Denda erdi liburuek betetzen dute, eta dirutan ere sarreren %40 inguru liburuek salmentatik lortzen dugu”. Irabazi-tarte txikiena uzten duena ere, liburua da, baina. “Eskariak egin, datuak ordenagailuan sartu... lan handia ematen dute liburuek, eta are gehiago gure kasuan, eskarien arabera lan egiten dugulako. Nolanahi ere, bati baino gehiagori esan izan diete hemen aurkitzen ez badute ez dagoen seinale dela eta hori oso ona da guretzat”. Arantza bat ere badute, hala ere: “Euskarazko liburuen eskaria txikia da”. Ipuintetan, bai, jendeak eskatzen ditu euskarazkoak, baina adin batetik aurrerakoentzako liburuetan jendeak nahiago ditu gaztelaniazkoak. Argi dute emakumeek gizonak baino gehiago irakurtzen dutela, eta gaztelaniaz euskaraz baino gehiago. “Liburuak izugarri gustatzen zaizkigulako eusten diogu honi, eta badaudelako, gu bezalaxe, papereko liburuen oso zaleak direnak ere”. Horren adibide esan digute liburu elektronikoa oparitu dioten bat edo beste penatuta joan direla beraiengana esanez nahiago dutela dendara joan, eta liburuak begiratu eta paperekoak esku artean hartzea.

Liburua ez da opari txarra, baina oparitarako aukera zabalagoa dute Pitxintxun. “Hasi berri zen opari informalean garaia eta Valladolideko saltzaille bat etorri zitzaigun esanez dendan geneukanarekin apenas geneukala ezertarako. Hainbat opari ekarri zitzigun eta esan zigun 15 egunean saldu ezean jaso egingo zituela. 15 egun baino lehen, ordea, saldua geneukan dena”. Beraz, mertzeriako gauzak saltzeari utzi eta opariekin jarraitu zuten. Eta gaur arte. Mertzeriak ez zuen ematen. “Ondo gogoan daukagu hari-karrete bat baino saldu ez genuen eguneko estuasuna”.

1979. urtekoa da goiko argazkia, zabaldu zuten urtekoa. Bigarrena, ufalek denda hartu zutenekoa, 1983koa.



ALDAKETAK

Askorako eman dute 40 urtek eta urte horietan guztietan dendan sartu dituzten orduak. Txankakua merkatarien elkartearen sorrera, esaterako, mugarrizat dute. Ordura arte, herriko dendariak apenas zuten harremanik euren artean. Oztopo ikusten zuten beraiek hori, eta batzearen alde egin zuten. Mari Jose Estibaritz eta Aintzane Garate bilera askotara joan ziren elkartearen abian jartzeko, eta dendek informatizatzeko beharra zutela izan zen atera zuten ondorioetako bat. "Orduan dena eskuz egiten genuen. Kalkulagailu bat geneukan; besterik ez. Ordenagailua jartzeak askatasuna eman zigun, eta lana erraztu ere bai: Liburuak erregistratzea erraztu zigun eta bezeroak eskatzen ziguna dendan ba ote geneukan momentuan jakiteko bidea ere bai. Beste datu batzuk ere ematen dizkigu ordenagailuak: zenbat bezero pasatu diren egunean, zenbat saldu dugun... Baina horren harira ere entzun izan genituen. Elkarrenganako konfiantzarik ez ote geneukan ere bota zigun bakarren batek".

Informatikaren garai beretsuan iritsi ziren, baina, Elgoibarrera, bestelako dendak ere. "Pitxintxun denetarik egon arren *Todo a 100* dendak ireki zituzten, merkatalgune handiak ere bai eta txinatarren dendak gero. Baina gure bezeroa bertakoa da, herrian erosten duena eta eutsi diogu". Lanerako aurrerapena izan dena, baina, aurkari ere badute. "Internetek dakar denda txikien galbi-

dea". Hala ere, bezeroei beti eskaini behar zaie eskatutakoa eta ahalik eta azkarren. Gainera baikoitzak bere bezero propioak ere badituela esan digute bi ahizpek, eta bezeroa atetik sartu orduko badakitela zeinek zein atenditu behar duen. "Bezero oso onak dauzkagu, baina proportzio oso txikian badaude eguna izorratzen digutenak ere. Baina jende horrekin ere bizi behar dugu, eta esan beharrik ez dago gurea moduko dendetan, pazientzia ezinbestekoa dela".

Salmenta eta bezeroekiko arreta ez ezik bestelako zerbitzuak ere eskaini dituzte. Herriko talde eta elkarteentzat atea zabalik izan dute beti, eta Haizeakoentzat, adibidez, erreferentziatzeko puntua izan da beti. Garai batean, sarrerak ere saltzen zituzten antzerkirako, kontzertuetarako, baina gaur egun neurtago dute hori: "Pirritx eta Porrotx pailazoetarako sarrerak saltzen hasi ginen, baina haserreak sortu zirenez, utzi egin genion. Gaur egun herrikoen ekitaldietarako saltzen ditugu bakarrik". Momentu gaziak ere izan dituzte 40 urtean. Gai jakin batzuetan busti beharra ere sentitu dute eta horrek sortu dizkie buruhauste batzuk, Eskola Publikoaren alde agertu zirenean bezala. "Oso gogorra izan zen guretzat, eta sufritu genuen. Bezeroak ere galdu genituen, baina zorionez etorri zen dena bere onera". Aurrera egiteko indarra, baina, ez die ezer kendu. Erretiroa hartzeko eguna iritsi arte dendan jarraituko dutela esan dute. Etxean ez dute dendan erreleboa emango dienik, eta gustatuko litzaike norbait animatzea. "Tristeia izango litzateke funtzionatzen duen denda ixtea. Dendek bizia ematen diote herriari. Jende askok esaten digu igandeetan ere beti ematen diola begiratua eskaparateari".

Ez daude erretiroa aurreratzeko, hala ere. Orain, 40. urterena ospatzea dagokie, eta hala egingo dute apirilaren 23an, familia eta lagunekin batera. Zorionak, bada, Pitxintxu.



Pitxintxunekoak mozorrotuta 1994ko inauterietan.

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa izango da asteburuan

Asteburu honetan jokatuko da Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa Elgoibarko Herriko Antzokian. Apirilaren 21ean, zapatuan, 7 eta 12 urte artekoak arituko dira 16:30ean hasita. Maila honetan bi elgoibartarrek hartuko dute parte Sare Sainzek eta Malen Galarragak, hain zuzen ere. Gainontzeko dantzariak Oiartzun, Etxarri, Pasai Donibane eta Lezotik etorriko dira.



Domekan, goizez egingo dute dantza. 12 eta 15 urte arteko neskek. Hauetan honakoak dira elgoibartarrak: Jone Gil eta Amaia Sasian. Gainontzekoak, berriz, Amasa-Villabona, Anoa, Oiartzun, Etxarri, Zizurkil, Larraul, Asteasu eta Adunakoak.

Mutiletan 11 eta 15 urte artekoek jardungo dute, tartean lau elgoibartarrek: Markel Goenaga, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz eta Aimar Almortza. Dantzara etorriko diren beste mutilak Lezo, Amasa-Villabona, Ziordia, Oiartzun, Ibarra eta Alegiatik etorriko dira.

Euskal dantzak gustuko dituztenek, beraz, aukera izango dute zapatuan eta domekan herriko zein kanpoko haur dantzariak ikusteko.

Liburuaren egunean hiru literatura saio izango dira Elgoibarko liburutegian

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta horren harira, hainbat jarduera antolatu dituzte Gotzon Garate Udal Liburutegian. Astelehen goizetan, astero, beharizan bereziak dituztenen talde bat elkartzen da liburutegian irakurketa erraza lantzeko. Astelehen hau berezia izanik, beraiek ere ekintza berezia egingo dute. *Rif mendietako ura liburu*a irakurtzen ari dira, Ahmed gazte marokorren istorioak oinarri dituen. Hori dela-eta, Eibarko Ghita Ourdi inguru haietaz hitz egitera etorriko da liburutegira eta dantzarako tarte ere hartuko dute liburuaren eguna ospatzeko.

Arratsaldean izango dira gainerako ekitaldiak. *Ipuinketan* saioa izango da lehenengo, Iraitz Lizarragarekin. 17:00etan HH 5ekoekin eta LH 1 eta 2koekin 17:30ean ipuinak kontatzeko elkartuko dira.

Ondoren, *Epeletan* euskal literatura tailerrekoen txanda izango da, 19:00etan. Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* liburu izango dute hizketagai eta eguna biribiltzeko afari-merienda egingo dute.

The Riff Truckers taldea gaur Sotoan

Sinuosek antolatuta Sotoko Hotsak jardunaldia izango da gaur, apirilak 20, Kultur Etxeko Sotoan, 23:00etan. The Riff Truckers, Bizkaiko rock&roll taldea arituko da. Rock doinuei blues eta country ukituak ere emango dizkiete. *Over the Edge* bost abestiko disko berria aurkeztuz. Disko berria ez ezik taldeak ere ukitu berriak izango ditu, beraz, azken partaideak aurkezteko ere izango da kontzertua.

Ludoteka ibiltaria datorren barixakuan Maalan

Datorren barixakuan, apirilaren 27an, ludoteka ibiltaria izango da 17:30etik 19:00etara bitartean Maalako parkean. Hiru ekintza egingo dituzte hara gerturatzen direnek: sukaldaritza jarduerak, eskulanak eta jolasak. Ludotekakok 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat gomendatu dituzte jarduerok. Hilabetearen behin egingo dituzte ludotekakoek kanpoko ekintzak.

Aurrez grabatutako 'Macbeth' opera Herriko Antzokian

Aurrez grabatutako Macbeth opera ikusteko aukera izango da datorren domekan, apirilaren 27an, Elgoibarko Herriko Antzokian 20:30ean. Verdik Shakespeareren obrekin duen harremanaren isla da, Macbeth izan baitzen lehena. Urre koloreak, beltzak eta gorriak bat egingo dute opera honetan. Sarrerak aurrez eros daitezke Kutxabanken, edo zapatuan 19:15etik 21:45era, eta egunean bertan antzokiko lehiatilan 10 euroan (Gazte-Tarteldunek 7 euro).



Bartłomiej Przedwojewski eta Vanessa Pelaez gailendu dira Kilimon Trail mendi lasterketan

Bartłomiej Przedwojewski poloniarra eta Vanessa Pelaez andoaindarrak nagusitu ziren apirilaren 14an jokatu zen Mendaroko 8. Kilimon Trail mendi-lasterketan, eta poloniarrek, ia bi minutuan ondu zuten gainera iaz Julen Laruzeak ezarritako marka, 1.54:43ko denbora eginda. Zegama-Aizkorri maratoia prestatzeko etorria da Euskal Herrira Przedwojewski beste lagun batekin batera [Mendaron seigarren egin zuen Marcin Rzeztokorekin], eta eman zuten erakustaldia ikusita, haren dortsala begiz jota izatea komeniko da maiatzaren 27an, sei aldiz munduko txapeldun izana den Marco de Gasperi handiak helmugan ohartarazi zuen moduan. Aipagarria da, era berean, Gorka de la Horra elgoibartarrak egin zuen denbora. Bederatzigarren sailkatu zen, 2:10:30eko denborarekin. Emakumezkoetan ere ezustea izan zen. Maite Maiora mendarorarra zen lasterketa irabazteko faborito nagusia, sei alditan irabazi baitu etxeko proba. Vanessa Pelaez andoaindarrak, baina, aurrea hartu zion eta bera izan zen helmugaratzen lehen emakumezkoa, 2:23:20ko denborarekin. Ia lau minutu gehiago behar izan zituen Maiorak, 2:24:14. Ibilbide laburrean, 11 kilometrokoan, Zoihartzte Moral gailendu zen gizonetzkoetan (00.52:06) eta Marine Izaola (1:10:04) izan zen azkarrena emakumezkoetan.



Haundik partida erabakigarria jokatu du Mintxetan bigarren sailkatuaren aurka

Haundi futbol taldea maila igoera lortzeko lehia sartuta dago bete-betean, are gehiago azken jardunaldian Azpeitian jokaturako partidari Ikasberri taldeari 0-1 irabazi ostean. Hirugarren postuan sailkatuta daude 48 punturekin, liga amaitzeko lau jardunaldi falta direnean. Haundik bigarren postuan dagoen Tolosaren (54 puntu) aurka jokatu du zapatuan, hilaren 21ean, Mintxetan (16:30). Hurrengo jardunaldian, berriz, Aloña Mendiri egingo dio bisita. Oñatiarrak Haundi baino postu bat beherago sailkatuta daude une honetan, puntu bat gutxiagorekin. Bestalde, C.D. Elgoibarreko beteanoek Zaragozako Atletico Ranillas taldearen aurka jokatu dute partida, Mintxetan, zapatuan (12:30).

Futbol Eskola, plazara

C.D. Elgoibarrek Nesken Futbolaren Eguna antolatu zuen apirilaren 13an, nesken artean futbola sustatzeko helburuarekin. 40 neska aritu ziren futboleko Kalegoen plazan, Realeko teknikarien laguntzarekin. Lau txandatan banatuta jokatu



zuten futboleko Realeko Garbiñe Etxeberriak eta Aintzane Encinasek gidaturako saioan. Futbol Eskolako mutilak, berriz, Aita Agirre plazan aritu zire futboleko.

25. Jose Gurrutxaga krosa, domekan



Domekan, apirilaren 22an, jokatu da Elgoibar ikastolak urtero antolatzen duen Jose Gurrutxaga krosaren 25. ekinaldia. Mendaroko eta Elgoibarko ikastetxeetako eskola-umeek parte hartu ahal izango dute, eta dagoeneko 784 ume eman dute izena. Adinka eta sexuka banatuko dituzte haurrak korrikarako eta hamahiru lasterketa izango dira guztira. Lehenengoak, 2010 eta 2011. urteetan jaiotakoak, 10:30an abiatuko dira. Lasterketa guztiak amaituta, 2001. urtetik atzera jaiotakoek izango dute korrikarako aukera. Zirkuitoari hiru buelta eman beharko dizkiote (3.613 m.). Izen-emateak udaletxeko arkupeetan egingo dira, eta 10:30ean itxiko da izena emateko epea.

Andutzera egin zuten mendi irteera Elgoibarko mendizale gazteek

Andutz mendira irteera antolatu zuen Morkaiko mendi taldeak, ikastetxeekin elkarlanean, joan den apirilaren 15erako. Hasierako ideia Lasturretik igotzea bazen ere, azken egunetako euriteek sortaturako lokatza zela eta, Itziarko poligonotik abiatu zuten mendi irteera. Hogei haur eta beste horrenbeste nagusi ailegatu ziren Andutzeko gailurreraino. Maiatzan ez da mendi irteerarik egongo. Izan ere, maiatzaren 12an Morkaikoren Eguna ospatuko dute, eta Elgoibarko Itzuliaz gainera, Itzulitxo ere antolatuko dute.





Kros Antolatzaileen Espainiako Elkarteak Elgoibarren banatu ditu urteko sariak

Kros denboraldian nabarmendu diren atleta, entrenatzaile, babesle eta antolatzaileek, besteak beste, errekonozimendua jaso zuten Kros Antolatzaileen Espainiako Elkarteak (ANOC) urtero antolatzen duen galan, joan den apirilaren 14an. Estreinakoz egin dute gala hau Euskal Herrian, ANOCek Mugertza krosaren 75. urteurrenarekin bat egin nahi izan baitu. Gala Elgoibarrera ekartzeaz gainera, aurtengo sari berezia (ANOC Sari Berezia) ere Mugertza krosari ematea erabaki du kros antolatzaileen elkarteak. Hamahiru krosek osatzen dute ANOCen egutegia eta horietatik hiru euskal lurretan jokatzeko

dira: Amorebieta, Donostia eta Elgoibarkoa. Mugertza krosa da, gainera, Atapuercako krosarekin eta Sevillan jokatzeko den Italicakoarekin batera, aurten IAAF kategoria izan duen hiru krosarekin bat. Aipaturiko krosarekin gertatutakoaren laburpena egin ostean, horietan nabarmendu diren atletak saritu zituzten Herriko Antzokian egin zuten denboraldi amaierako krosaren galan. (barren.eus webgunean ikus ditzakezue saritu guztien argazkiak). Asteburuari bukaera emateko, kros antolatzaileek urteko bilera ere Elgoibarren egin zuten. Udaletxeko pleno aretoan batzartu ziren aurreko domeka goizean.

Unai Loiola lidergoan ailegatuko da Gipuzkoako Txapelketako Idotorbeko bola-joku jardunaldira

Gipuzkoako hiru txirlo bola-joku txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu dute zapatuan (apirilak 21), Idotorbeko bolatokian (17:00). Unai Loiola elgoibartarra sailkapen orokorreko lidergoan ailegatuko da tiraldira. San Migel A taldeko bolariak 17 txirlo jo ditu orain arte jokatu dituzten lau tiraldietan. Asola Berriko Sergio Rodriguez doa bigarren postuan, 16 txirlo jota. Xabier Loiola (San Migel A) elgoibartarra dago hirugarren postuan 15 txirlorekin, eta Javier Osoro (San Migel A) dago bosgarren postuan.




Unai Loiola Bergarako San Joxepeko tiraldian.



Arg.: I. Bermejo

Tecnifuellek Elgoibarren jokatu du Espainiako Eskubaloi Txapelketako azken fasea, maiatzaren 2tik 6ra

Espainiako Eskubaloi Federazioak jakinarazi duenez, jubenil nesken Espainiako Txapelketako azken fasea Olaizaga kiroldegian jokatu dute denboraldiko zortzi talde onenek, tartean Tecnifuelle Elgoibarrek, maiatzaren 2tik 6ra bitartean. Tecnifuelle bigarren multzoko Lauko Finalean lehiatuko da. Elgoibartarrek Gaztela eta Leongo talde txapelduna (Angel Optico Varilux BM Zamora), Galiziako txapelduna (Graficas Lasa Carballal) eta Madrilgo txapelduna (BM Sanse) izango dituzte aurkari. Lehen Multzoko Lauko Finalean, berriz, Kataluniako txapelduna (KH-7 BM Granollers), Valentziako txapelduna (Elche a Grupo Assa), Galiziako txapeldunordea (BM Porriño) eta Andaluziako txapeldunordea (Adesal Cordoba) lehiatuko dira, hauek ere Elgoibarren. Tecnifuellek Euskadiko Txapelketa irabazi zuen lehenik, eta joan den asteburuan Espainiako Txapelketako bigarren faseko Lauko Finala irabazi zuen Burlatan, azken faserako sailkapena lortuz. Igor Lizarraldekin entrenatutako neskek nagusitasunez irabazi zituzten lehen bi partidak: 25-20 Bartzelonako Sant Vicenc taldeari, eta 27-15 Kanarietako Caimari. Azken partidak Malkaitz, etxeko taldea, izan zuten aurkari eta berdinduta amaitu zuten neurketa (23-23). Sanloko taldeak Espainiako Txapelketa irabazteko aukera izango du orain etxekoen aurrean. Erronka zaila izango den arren ezina ekinez eginga lelo edo bizi filosofia gauzatzen saiatuko dira, beste behin ere. Sanlok jubenil mutilen Espainiako Txapelketako bigarren faseko Lauko Finala bat antolatu zuen joan den asteburuan, eta Barcelona Lassa taldea izan zen jaun eta jabe, hiru partidak alde handiarekin irabazita. Deca Elgoibarrek ezin izan zuen partidarik irabazi eta lau garren sailkatu ziren. Hori bai, Asier Urain elgoibartarra aukeratu zuten txapelketako jokalaria onena.



Ainhoa Lendinezek bigarren egin du Arrasate-Udalatx lasterketan

Mondraitz Kirol Klubak antolatutako Arrasate-Udalatx mendi lasterketan 330 antxixikarik hartu zuten parte, apirilaren 15ean. 21 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten, ibilbide teknikoa lehen erdian -Udalatxeko gailurrera (1092 metro) igo behar zuten 9. kilometroan-, eta azkarraragoa bigarren zatian. 2017ko Kilimon Trail lasterketa irabazi zuen Julen Larruzea larrabetzuarra izan zen azkarrena (1:47:39). Emakumeen artean Ane Zabala arrasatearra gailendu zen (2:23:58) eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra sailkatu zen bigarren postuan (2:25:56), irabazlearengandik ia bi minutura.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Gauetan ere bai. ☎ 632 733 573

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburuetan bakarrik. ☎ 631 655 390

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ 626 407 923

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 657 438 357

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. Orduka eta asteburuetan ere bai. ☎ 631 558 243

Adinekoak eta umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ 688 652 050

Tabernan zerbitzari lanetan edo sukaldeko laguntzaile lanetan aritzeko prest. ☎ 632 983 756

Zerbitzari gisa lan egiteko prest. ☎ 687 940 566

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest. ☎ 638 338 816

Adineko pertsonen zaintzan eta garbiketetan lan egiteko prest. Orduka edo etxeko langile modura. ☎ 642 290 762

Adineko pertsonak zaintzeko prest, etxeko langile modura. ☎ 617 414 989

Elkarteen garbiketetan edo adinekoak zaintzen, etxean zein ospitalean, lan egiteko prest. Esperientzia eta ikasketak dauzkat. ☎ 671 989 434

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketarako prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 646 821 678

Adineko pertsonak zaintzeko prest, baita etxeko langile moduan ere. Esperientzia handia. ☎ 602 193 095

Adineko pertsonak zaintzeko prest, baita etxeko langile moduan ere. Esperientzia handia. ☎ 612 016 458

Adineko pertsonak eta gaixoko ospitalean zaintzeko prest. Orduka eta etxeko langile gisa. ☎ 632 949 742

Lan bila nabil. Digitalizazioan esperientzia handia. ☎ 602 819 349

Garbiketetan, zerbitzari, baserrian... lan egiteko prest. ☎ 602 072 969

Adineko pertsonak zaintzen, garbiketetan edo tabernetan lan egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ 686 077 316

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo etxeko langile gisa. ☎ 602 047 812

Garbiketa lanetan aritzeko zein adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Bederatzi urtez egon naiz adineko bat zaintzen. Elisabet. ☎ 631 376 202

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile aritzeko gertu. ☎ 688 735 551

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia adinekoak zaintzen. ☎ 631 414 947

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia adinekoak zaintzen. ☎ 631 617 281

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako prest. ☎ 693 710 696

Adinekoak gauetz zaintzeko prest. ☎ 632 733 573

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketetan lan egiteko prest. ☎ 636 517 025

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketetan lan egiteko prest. ☎ 632 779 980

Adinekoak zaintzeko edo beste edozer lanetarako prest. ☎ 631 556507 / 612216458

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile, baita asteburuetan ere. ☎ 612 518 050

Adinekoak zaintzeko prest asteburuetan. ☎ 603 503 689

Adinekoak zaintzeko prest orduka. ☎ 631 620 344

Eskaintzak

Zerbitzaria behar da Mahats ardandegian lan egiteko. ☎ 646 936 092

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 632 983 756

Elgoibarren, berehala sartzeko etxebizitza bila gabiltza. Bikote arduratsua. ☎ 683 415 222

GARAJEAK.....
Marradun garajea salgai Leku Ederren. ☎ 615 707 857**OSPAKIZUNAK.....**

1932an jaiotako elgoibartarren ospakizuna apirilaren 28an. 12:30ean Maalan meza eta 14:30ean bazkaria Ibai-Ondo erretegian. Interesdunek Castrillejo estankoa eman behar dute izena apirilaren 23a baino lehen.

1943an jaiotako elgoibartarren ospakizuna apirilaren 28an Sigman. Interesdunek 50 euro sartu apirilaren 24a baino lehen Laboral Kutxan: E572 3035 0007 2900 711 35212. 12:30ean ospakizun erlijioso parrokiar, gero argazkia, 13:00etan luncha eta 14:30ean bazkaria.

1988an jaiotako elgoibartarren ospakizuna maiatzaren 19an Sigman 15:00etan. Poteoa 13:00etan Kalegoen plazan. Diru-sarrera (50 euro) maiatzaren 4a baino lehen Bankoan: 0138 0039 1901 5179 4328

1963an jaiotako elgoibartarren ospakizuna ekainaren 2an Sigman (luncha, bazkaria eta dantzaldia 55 euro/gaueko mokadutxoarekin 65 euro). Diru-sarrera maiatzaren 18rako Laboral Kutxan: E570 3035 0007 25 0071134765

1959an jaiotako elgoibartarren ospakizuna ekainaren 9an Sigman. 13:00etan Tantanek luncha. Interesdunek 55 euro sartu maiatzaren 20a baino lehen Laboral Kutxan: 3035 0007 22 0071135234. Kontakurako: 639 760 959.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkartasunaren Administrazioaren Erakunde Nazionala



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire bizilagunen komunitatean zutabe aizunetatik pasatzen ziren hondakin-uren hodiak konpondu dituzte. Zutabeak kendu eta hodiak sabaitik pasatzea lokalen onurarako izan da. Lokalen jabeak eskatu du lokal guztien hedadura estaliko duen sabaia eraikitzea. Eskatu al dezake lokalen jabeak sabai hori egitea? Hori hala balitz sabai guztia estali beharko litzateke ala hodiak estaltzen dituen zatia baino ez?

Galdera honen oinarria da komunitatea derrigortuta al da goen kalte estetikoak ordaintzera lanak guztien elementuak konpontzeko egiten direnean, baina jabetza pribatu bati eragiten diotenean.

Nire ustez, eskatu daiteke sabai hori jartzea, baina ez lokal guztian, hodiak estali behar diren gunean baino ez, hor egin baita kalte estetikoa. Horrelakoetan, kalte estetikoak, komunitateak ordaindu behar ditu, bere ardurapean baitaude ezbeharak eragindako kalte guztiak.

Aholkua: Lanak lokalean izan diren kalte guztiak konpontzeko izan behar dira, baita estetikoak ere. Beraz, lokalen jabeak eska dezake obra hauek egitea lokalaren itxura egokia errespetatuz.




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ilune**, 8 urte beteko dituzulako. Muxuak, etxeko guztien partez, eta bereziki Maitaneren partez. Ondo pasa!




Zorionak, **Nahia**, astelehenean 9 urte egingo dituzulako. Elgoibarko familiaren partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Iratzi**, ostegunean 5 urte potolo beteko dituzulako. Muxu bat, aitaxo, amaxo eta Maddiren partez.



Zorionak, **Sara**, senide eta lagun guztien partez. Disfrutatu urtebetez eguna!



Zorionak, **Ibai**, apirilaren 21ean urtetxo bat beteko duzulako. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Lucia-txo**, astelehenean 3 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Narrea**, gaur 5 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki Alain, Enai eta Julenen partez.



Zorionak, **Ane**, asteazkenean 5 urte beteko dituzulako. Etxekoen eta bereziki Iker eta Mirenen partez.



Zorionak, **Ane**, astelehenean 7 urte beteko dituzulako. Ondo pasa zure egunean. Muxu bat, etxekoen partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



BODAI ESTETIKA (BST)
Pedro Mugurutzua, 9 beheak
20870 Bgoibar

Laura Rodriguez
Tel.: 646 599 211
bodaiestetika@gmail.com

Zabaldu berria!
Apirilean **%10**eko deskontuak dauzkagu tratamendu guztietan. Zatoz gu ezagutzera.

- 🌸 Kiromasajea
- 🌸 Oin erreflexologia
- 🌸 Gorputz drantzalea
- 🌸 Gorputzeko tratamenduak
- 🌸 Aurpegiko tratamenduak



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzuroptika.com

Probatu itzazu lentillak doan, graduazio guztietarako.

Hain dira erosoak, ezer ez daramazula irudituko zaizula.

Alcon & Serravallo Division
BETEHARRIEN ERABILKETA

20 BARIXAKUA

21:30 Zine foruma: *Aprendiendo a conducir*. Gidaria: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Kontzertua: The Riff Truckers. Antolatzailea: Sinüose. Kultur Etxeko So-
toan.

21 ZAPATUA

11:00 IMHko heziketa zikloen eta in-
geniaritza dualaren informazio saiok.
Aurkezpena eta bisita. IMHn.

16:00 Elgoibarko XVII. Aurreku eta
Soinu Zahar Txapelketa. A maila. I. Be-
reziartua Musika eta Dantza Eskola. El-
goibarko Herriko Antzokian.

21:00 Bertso barrikotea. Uxue Alberdi
eta Unai Iturriaga. 20:00etan bilduko
dira, Iturri tabernan. Afaria Kimetz elkar-
tean.

22 DOMEKA

10:30 XXV. Jose Gurrutxaga krosa. An-
tolatzailea: Elgoibar ikastola. Herriko ka-
leetan.

11:00 Elgoibarko XVII. Aurreku eta
Soinu Zahar Txapelketa. B maila. I. Be-
reziartua Musika eta Dantza Eskola. El-
goibarko Herriko Antzokian.

23 ASTELEHENA

17:00 eta 17:30 Ipuin kontalaria:
Iraitz Lizarraga. Gotzon Garate Udal Li-
burutegian.

19:00 *Epeletan* euskal literatura taile-
rra: Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* nobela-
ren inguruan. Gotzon Garate Udal
Liburutegian.

24 MARTITZENA

19:00 Mahaingurua: *Nola landu biki-
men aitortza herri mailan? Nola edin au-
rrera memorian eta erreparazioan?*
Hizlariak: Laura Pedo eta Gema Varona.
Antolatzailea: Elgoibarko Udala. Musika
Eskolako auditoriumean.

27 BARIXAKUA

17:30 -19:00 Ludoteka ibiltaria. An-
tolatzailea: Ludoteka. Maalako parkean.

20:30 Opera emanaldia (aurrez gra-
batuta): *Macbeth*. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Gorrión rojo'

20 Barixakua, 21:30
21 Zapatua, 19:00/22:15 (VOS)
22 Domeka, 19:00
23 astelehena, 21:30

'Una familia feliz'

22 Domeka, 16:30

'Sin amor'

(Ongarri zine kluba)

26 Eguena, 21:30

ATE IREKIAK

ETORRI GURE ESKOLA EZAGUTZERA!

Data 2018 - 04 - 26

Ordua 17:00etatik 19:00etara

non: Arregitorre, 4

elgoibar.elgoibar@haurreskolak.eus

www.haurreskolak.eus

Elgoibarko Haurreskola

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
20 BARIKAKUA	21 ZAPATUA	22 DOMEKA	23 ASTELEHENA	24 MARTITZENA	25 EGUAZTENA	26 EGUENA	27 BARIKAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Yudego	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410



VII. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

Zure maitasuna eta irribarrea beti gurekin daramatzagu.

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesusek





VII. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

*Zure begiek ene maitia
badute biek dir-dir eztia
zeruko lore miresgarriak
izarren pare zoragarriak.
Maitasunez, etxekoek.*

VII.urteurreneko meza izango da,
apirilaren 21 ean, 19:00etan
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





1962

Santa Klarako mojek apirilaren 7an utzi zuten Elgoibarko komentua eta hori entzute hutsak bat baino gehiago eraman du etxean eskolako noten liburuxkak eta argazkiak zituen txokoa begiratzera eta honako hau agertu da garai hartan Santa Klarako eskolan ibili zenetako baten kutxan. Ama Rosario mojarakin ageri dira orduko neskatilak. Sallobente-Ermuaran auzoko Zulueta baserrikoa zen beraien irakaslea eta *Labores* ikasgaia zegoen honen ardurapean. Josten irakasten zien, alegia, eta makina bat teknika ikasi zituzten garai hartan: *cordoncillo*, kate itxurako bordatuak, gurutze-puntua, *filtré*, bordatuak, bodekeak, oihaletako zuloak, presillak... Ohiko ikasgaiez gain, bestelako kontuak ere ikasi zituzten, bada, Santa Klaran.

Zutik: Amaia Ribero, Ama Rosario, Miren Juaristi, Mari Juli Konde, Carmen Etxaniz, Begoña Iriondo, Maria Luisa Zubiaurre eta Merce Garcia. **Behean:** Isabel Etxaniz, America Sanz, Maje Arrese, Begoña Bilbao eta Maria Isabel Unanue.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- e-postaz bidali: barren@elgoibarkoizarra.eus
- Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**








ROSA Mª PINTADO
Etxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net

Bulego kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioaren
Lurralde Kontseilua

DERRIGORREKO
KOLEGIATZEA

BAI!
MILA ESKER



Mondragon
Unibertsitatea

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK



Auto baten xasis-a
3D inprimagailu baten
eraiki dugu.

Nerea Sanchez Echezarreta

Errenteria. Prozesu Industrialetako
Ekoteknologiaren Ingeniaritza, 3. maila



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE • **APIRILAK 26**

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO • **MAIATZAK 5**

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI • **APIRILAK 28**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • **MAIATZAK 5**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA • **MAIATZAK 17**

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIAITZA • **MAIATZAK 12**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • **MAIATZAK 12**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA • **MAIATZAK 12**

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARRIA
JAKINARAZI!



902 110 436

www.mondragon.edu/prest